

TOKIKOM

Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2016ko maiatza • 315. alea



MIKEL ARANZETA
Kaleko dantzen pausoan

sutarako egurra salgai
pago-egurra, haritz-egurra...

SUMA
basolanak

mug. 635 71 34 08



TXURRUKA
JATETXEA

- Sukalde tradizionala
- Eguneko menua
- Asteburuetako menu berezia
- Karta

www.txurruka.com
Tel.: 943 75 15 81



Mendata

Tel.: 943 25 74 52 / 680 75 40 60

Enkarguak egiten dira
Eramateko prestatzen da
Menu bereziak enkarguz

Berezitasunak:
Ebean egindako
pizzapatak eta
patata frijituak

ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA



Tel.: 943 75 13 24
Mug.: 652 77 70 30

Elizpe
Hertz klinika

Gare zerbitzuak:

- Ortopedia ilustroia
- Inplantak

DONAGIEN BEHARLAGETIA
FINANTZAKETA ZURE HELKERIA
KONPROBESORIK GABEKO AURREROKUNTUA

MUTUALIA, PADI (haurren arretarako hertz programa)

Tel. 943 75 25 67
Elizburu, 3 beheko. Soroluzte

**Jean
Louis
David**

**Etorri zaituz
ile-apaindegi
berria ezagutzera!**

Jean Louis David



Ibargarai 48 - Bergara
Tel.: 943 76 22 48

Berba egitearen gozamina

Uste dut denok dakizuela Francoren garaian, baita geroago ere, Bilbora, Gasteizera edo Durangora egun pasa edo erosketak egitera joan eta dendaren batean, nahi gabe, barkatu ezineko akatsa egin zutenen kontua. Eta entzuten zienak mespretxuzko tonuz erantzuten zien: ¡Habla en cristiano! Esaldi horrek asko eragin zien herri txikietan bizi eta gaztelerez zuzen ez egitearren lotsatzen zirenei.

Kontuok entzutean, asaldatu egiten nintzen eta, beste behin, ulertu nuen nire belaunaldiko euskaldunek eta haien gurasoek sufritu zuten umiliazio eta zauri sakona. Euskaldunak hain dira herri adeitsuak eta edukazio onekoa, beste kulturetara hain irekiak, ezen hamarreko lagun-taldean euskara hitzez hitz ulertu arren, berba egiten ez duen bakkarren bat badago, bederatziz euskaldunak gaztelerez hasten direla.


Lagunartean gatazkak eragotzi nahi izatetik ote dator halako sentiberatasuna? Edo izango da Francoren garaitik datorren heziketak behartzen dituela euskaldunak, ia oharkabean, edozein momentutan erdal hiztunen aurrean gaur egun gaztelerez ongi berba egiten dutela erakustera?

Orain dela bederatziz urte hasi nintzen *Berbalagun* egitasmoan parte hartzen. Aurretik euskaltegian ikasi nuen euskara, euskara batua. Hasieran *Txokoan* elkartzen ginen; ez nuen ezer ulertzen eta apenas egiten nuen berba. Handik denbora batera, konturatu barik, Soraluezko hizkera gero eta gehiago ulertzen hasi nintzen. Saioak dibertigarriak ziren, edozein gairi buruz



Michaela Weinberg

“Umiltasuna edo lotsa pixkat behar da bizitzan, baina uste dut euskaldun izatearen eta euskaraz egitearen harrotasun handiagoa erakutsi behar dela!”



berba egiten genuen eta ez ginen sekula aspertzen. Geroago, jende gehiago sartu zen eta nire esperientzia bertsua bizi izan dute.

Zertarako lagundu herri honen arima salbatzen? Zein eskubide du nazio honek bizirauteko? Duen izaera bereziak merezi ote du? Balorea eta fideltasuna, askatasuna maite izatea, tradizioaren zentzua, bizipoza, ospakizun eta musikarekiko maitasuna, ekintzaile jarrera, bizitasuna, saiatua izatea, efizientzia eta diligenzia, abegi ona... Horiek dira Herbert Lüben alemaniarrek *“Euskaldunak eta Euskal Herria”* liburuan euskaldunei ezarritako ezaugarriak, eta nire ustez izaera horregatik irau du hain hizkuntza zaharrak azken glaziaziotik gaur egunera arte.

Umiltasuna edo lotsa pixkat behar da bizitzan, baina uste dut euskaldun izatearen eta euskaraz egitearen harrotasun handiagoa erakutsi behar dela!

Zertarako dihardut hainbeste eta hainbeste ordu euskara ikasten? Hemen bizi naizelako. Humboldtkek esan zuen bere liburuetako batean, bere bizitzako bi hilabete zoriotsuenak Gernikan igaro zituela. Herbert Lübenek zera esan zuen euskalduneri buruzko liburuan, Euskal Herrian emandako urteetan izan zela zoriotsuen. Eta ni ere, aspaldiko urteetan, zoriotsu naiz hemen bizi izanda, beraz, ahal dudanean euskaraz egiten dut.

Eta euskalduneri esan ohi diet, hemen bizitzearren zoriotsu bazarete, ahal duzuenean, egin beti euskaraz, gozamen handia da-eta.

Euskalzaletasunaren alde:



SORALUCE

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkariako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soralue, Gipuzkoa Telefonoa: 943 75 13 04 e-maila: aldizkaria@pilpilean.com
Erredakzioa: Egoitz Unamuno eta Gaizka Azkarate Zuzentzailea: Leire Ginea Publizitate: Gaizka Azkarate Diseinua: Iñigo Uribetxebarria Maketazioa: Oier Larreategi Inprimategia: Gertu Koop. Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale I.Z.K.a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA



Gutunak

Gurasos Erraustegiaren kezkaturako gurasoen mugimendua

Ezberdintasun guztien gainetik, osasuna

Gure txikitxo maitea,

Ama, aita, amona, aitona, izeba, osaba, herrikidea naiz.

Begira, ez zaitut larritu nahi, baina, entzun mesedez, arretaz, esango dizudanak merezi du-eta. Hortxe, Zubietan bertan, Errealak entrenatzen duen lekutik oso gertu, Erraustegia egiteko asmoa dute, bertan zaborra eta hainbat hondakin erretzeko. Bertatik aterako den kea arriskutsua izan daiteke osasunerako.

Bai, halaxe da, igarri duzu, ezta? Kezkatuta nago, bai, eta batik bat zuengan, haurrangan, oraindik hazten, garatzen eta osatzen ari zaretenongan sor ditzakeen eraginengatik.

Kezkatuta nago eta ezinegonik: erraustegiaren kokalekua bizi garen lekutik oso hurbil dagoelako (15-20 kilometroko eremuaren barruan). Erraustegiaren kokalekutik hurbil dauden lurretan landatutako barazkiak eta fruituak jaten dituzulako, edo eta, belardi horietan elikatzen diren abereen haragia eta bestelakoak jaten dituzulako. Horren ondorioz, kutsatuko den itsasoan bainatuko zarelako. Edota, nahiz eta gure bizilekutik urrun egon, ez nukeelako nahi inoren haurrek ondorio kaltegarri horiek jasaterik. Nire haurrentzat nahi ez dudana, inoren haurrentzat ere nahi ez dudalako.

Horregatik, lehenbailehen, zerbait egin behar dudala pentsatu dut: arrisku horretatik babestuko zaitut, maitea, zin dagizut!! Ez dut onartuko, inondik inora ere, haurren osasuna arriskuan jartzetik! Ez nioke, inolaz ere, nire buruari barkatuko, nire esku dagoen guztia egiten ez badut, gutxi bada ere. Erabaki dut beste guraso, aitona-amona eta senideekin batera bilduko naizela eta denok batera, elkarrekin, lan egingo dugula, erraustegiaren arriskua gainetik kentzeko. Zaude ziur: begiratu bi begietara, sinetsiez, ez dizut hutsik egingo! Erraustegiaren proiektua geldiarazten saiatuko naiz! Badakit, gure hondakinen arazoari beste irtenbide bat bilatuko diogula denen artean, posible delako, gizarateak eta gure ordezkariak horretan buru-belarri jarri nahi badute behintzat, gure osasuna eta ingurumena arriskuan jarri gabe!

Lan deialdia

Soraluzeko Kooperatiba Elkarte

Lan-poltsa osatzeko deialdia: kooperatibako langileak aldi baterako ordezkatu behar diren garaian kontratatu ahal izateko.

Eskaera aurkezteko epea: ekainaren 9a izango da.

Curriculum Vitae-a bidali edo ekarri behar da, titulazioa eta alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten agiriarekin batera, kooperativaplacencia@outlook.es helbide elektronikora edota ondorengo posta helbidera: Soraluzeko Kooperatiba Elkarte Kalebarren, 4 20590 Soraluze

Hautapen prozesuan kontuan hartuko da: bazkidetza, lan-esperientzia, prestakuntza eta euskera menderatzea.

Telefonoa: 943 75 13 45

Lapuritutakoa



Imanol Epelle

Beste gol bat gure atean

3 urtetan 12 milioi euroko zorra egin omen zion Aperribayk Gipuzkoako Ogasunari. Garai bereberetan 3.1 milioi euro jaso zituen Eusko Jaurlaritzatik Aperribayren Sapa-Placencia arma-fabrikak. Orain, iruzurgile eta armagile baten lehendakaritzapean dagoen futbol taldeari 4 milioi euro emango dizkio diputazioak eta 10 milioi Eusko Jaurlaritzak estadioa berrietzeko. 14 milioi euro denera. Besteak beste, jokalaria batzuei paradisu fiskalen bidez ordaindu zitzairen arren. Ez baitago diruz ordaintzerik titular on bat eta azala Diario Vascon. Lagun arteko argazki eta guzti.

Eta egia da. Nik ere eraman behar izan ditut Anoetara katalajuk futbol jokalaria ikusteko. Baina ezin nezake defendatu futbol talde bati hainbeste diru publiko ematea. Zer eta inoiz betetzera iritsiko ez den estadioa egiteko. Zer eta armagile iruzurgile batek bilatzen dituen golak finantzatzeko.

42.000 lagun sartuko omen dira estadio berrian. Ia 19.000 lagun joan ziren igandean (maiatzaren 8an). Horieta-tik 1.500 kontrako taldearen zaleak.



Artikulu hau Imanol Epelle zarauzta-rrak argitaratu zuen maiatzaren 10ean 27 Zapata blogean.

IZAGUIRRE
Igeltseritza

Eraikin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreformatik • Era guztietako igeltseritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 • 649 867 289

ALKARRI
elkartea

www.alkarri.org
alkarri@alkarri.org 622 725 557

- Boluntarioen prestakuntza eta antolamendua
- Esku-hartze gerontologiko eta sozialen programen garatzea
- Esku-hartze psikosoziala egoitza eta eguneko zentroetan
- Dizarte eta kultura animazio zerbitzu pertsonalizatuak

“Herrian 115 urte egitea harro egoteko modukoa da”

Soledad del Bosque
(Soraluze, 1950)

Alderdi Sozialistako antolakuntza idazkaria



Soraluzeko Alderdi Sozialistak 115. urteurreneko ospakizuna antolatu du ekainaren 4an. Udaletxeko zinegotzi lanak iaz laga bazituen ere, Soledad del Bosquek gogotsu jarraitzen du alderdiaren gidaritzan.

Zer prestatu duzue urteurreneko ekitaldirako?

115 urte, urte asko dira; herriko alderdirik zaharrena gara. Egun garrantzitsua izango da guretzat. Eguerdialdera ekitaldi bat egingo dugu Plaza Zaharrean. Alderdiko hainbat kide ezagunek parte hartuko dute: Patxi Lopez, Idoia Mendia, Jesus Egiguren, Odon Elorza, Iñaki Arriola...

“Herriko alderdirik zaharrena gara”

Zer dakizue herriko Alderdi Sozialistaren sorreraz?

Askorik ez dakigu. Diktadura garaian eta 23Fan alderdiaren agiri mordoak galdu ziren. Zorionez, alderdiaren eratze-agiria aurkitu genuen udaletxeko artxiboan. Agiria 1901. urteko ekainaren 6koa da, Celestino Elizburuk sinatuta dago eta zera dio, egun horretan eratu zutela Partido Socialista, Centro Obrero edo El Liberal deitzen zitzaion egoitzan. Gerra ostean, Santa Ana kaleko Herriko Etxea inauguratu genuen, ofizialki 1977ko urriaren 8an, eta bertan egon ginen, orain dela hamabost urte inguru gaur eguneko egoitzara aldatu ginen arte.

Orokorrean, zelakoa izan da Alderdi Sozialistaren bilakaera herrian?

Herrian ordezkariak sozialista izateko lan egin dugu beti, demokraziaren alde. 77ko amnistiaren ostean, udaletxean ordezkariak izateko lanean hasi ginen eta ordutik hona beti mantendu dugu, gutxienez zinegotzi bat eta gehienez hiru izan ditugu.

Garai hartan, mugimendu handia zegoen agrupazioaren inguruan: filmak eskaintzen genituen Herriko Etxean eta txirrundulari talde bat ere sortu genuen, hitzaldiak, afariak... Gero, elkarrengandik bereizten hasi ginen eta Alderdi Sozialista marginatuta gelditu zen herrian. Soraluzen sozialista izatea inoiz ez da erraza izan.

“Garai batean mugimendu handia zegoen alderdiaren inguruan baina gero marginatuta gelditu ginen”

Zure familiak lotura handia izan du alderdi sozialistarekin, ezta?

Bai. Gure etxean diktadura garaian asko pasatakoak gara. Gerra ostean aitita Santofñako gartzelan izan zuten preso, izaba Errusian eta gerora aitak presio handiak jasan zituen. Aita oso gogorra zen politika kontuetan eta inoiz ez zuen atzera egin. Halako familia batean eta giro horretan bizi izan ostean, ni naiz naizena.

Ondoren ETaren garaiak bizi izan ditugunean, niri esaten zidaten ea zer egiten nuen hor, baina ideia batzuekin zeharo konbentzita zaudenean ez duzu beste biderik aurrera egitea baino.

“Ideia batzuekin zeharo konbentzita zaudenean ez duzu beste biderik aurrera egitea baino”

Zela bizi izan dituzu urte horiek?

Oso gogorrak izan dira. Askok sufritu dut eta nire familiak ere bai. Ni erasotu naute hitzez eta nik hitzez erantzun dut. Inork ezin du esan nik inori minik egin diodanik, baina niri egin didate eta nire familiari ere bai. Niri ukabildada bat eman didate sabelean, faxista deitu didate... Harremana galdu dut lagun on askorekin; hala ere, ez naiz ezkatatu eta atzera begiratu pentsatzen dut merezi izan duela, nere herriaren alde jardun dudalako.

Nik Ezker Abertzaleko pertsona batzuk asko errespetatzen ditut, eurak ni errespetatu nautelako, baina beste jende askok egin didana ezin dut ahaztu eta ezin izango dut barkatu.

Etorkizunari zela begiratzen diozu?

Egia da gauzak asko aldatu direla, beste herri bat dirudi, baina ni neu itxita nago, defentsiban bizi izatera ohitu naizelako. Denborak lagunduko du, dena den, ez da larrosa artean egindako bidea izango.

Jatearen plazera. bertatik bertara

Batzoki

ogibitartekoak eguneko menua
asteburuko kartak razioak

Erreserbak: 943 75 20 16

Kontulan

aholkularitza
ABOKATUAK

Errenta aitortpenak • Administrazio lanak • Trafikoko burokrasia
Lan-arloko aholkularitza • Enpresen konstituzio/disoluzioak • Kontabilitatea

Santa Ana 13 - 1. etz. 20590 Soraluze • Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

Nibiru tatuaje estudioa ireki du Ainhoa Arruabarrenak



Ainhoa Nibiru estudioko atean.

Balategieta kalean zabaldu du tatuaje estudioa Ainhoak. Ainhoa Arte Ederretan lizentziaduna da eta umetatik izan du lotura zuzena marrazkilaritzarekin. Lokala lortzeko erraztasuna izan da

estudioa zabaltzera bultzatu duen arrazoi nagusia. Ainhoaren esanetan osasun baldintza zorrotzak gainditu behar dira tatuaje estudio bat zabaltzeko.

Afizioa ofizio bilakatuta

Ainhoak aitortu digu marrazketarako duen zaletasuna ofizio bilakatzea lortu duela. Hala, marrazteko bi modu uztartzen ditu estudioan: batetik, arkatza eta papera dira erabiltzen dituen tresnak eta, bestetik, makina, orratzak, azala eta tinta. Tatuatzera datorren pertsonaren ideia marrazkian irudikatzen asmatzea eta ondoren tatuatzerakoan bezeroaren gogoia betetzea dira orain Ainhoaren erronka nagusiak. Urteetan zehar estilo asko landu dituen arren, errealismoan sentitzen da erosoan.

Adinekoak kalera bajatzeko zerbitzua

Alkarri elkarteak eta Udalak Gurpilen izeneko proba pilotua jarriko dute martxan: 65 urtetik gorako pertsonak eta %33a baino ezintasun handiagoa duten 60 urtetik gorakoak merkatura jeisteko zerbitzua. Ekainaren 20ra arte luzatu dute egitasmoan izena emateko epea.

Gure Esku Dagoren kalejira

Gure Esku Dagok kalejira antolatu du ekainaren 3rako, ekainaren 5ean 34 udalerritan egingo diren herri-galdeketei babesa adierazteko. Kalejira arratsaldeko 19:00etan aterako da Plaza Zaharretik Oskresta Elektrotxarangak lagunduta eta 20:30ean talde-argazkia aterako dute 2017an Sorluzen galdeketa antolatzearen alde.



FotoNotizia



Berbalagunei omenaldia Atarrabian

Euskal Herri osotik joandako Berbalagunak batu ziren maiatzaren 14an Atarrabian ospatu zen Mintza Egunean. Bazkal ostean omenaldia eskaini zieten Sorluzeko Berbalagun egitasmoan hasieratik diharduten hainbat herritarri: Ander, Michaela, Enkarna eta Marijeri. Beste herritar batzuekin batera, bederatzi urte baino gehiago daramatzate astero euskara praktikatzeko batzen.

Sologoeneko zentrala udalaren eskuetan

Maiatzaren 5eko udalbatzarrean aho batez onartu zen zentrala EEERekin (EVE) batera kudeatzeko zegoen elkarte desegitea. Ondorioz, zentralaren jabetza eta kudeaketa osoa Udalaren esku geratuko da (orain arte Udalak %6ko jabetza zuen zentralaren kudeketan). Udal gobernua adierazi du datozen hilabeteetan zentralaren kudeaketa lehiaketa publiko bidez esleitzeko asmoa. Azken 10 urteotako ekoizpena, batz bestea, 723 kWh ingurukoa izan da, baina, azken bi urteetan izandako matsuren eraginez asko jaitsi da ekoizpena.



Etxabe Harategia

- Etxera eramaten da
- Enkarguak hartzen dira
- Sorluzeko baserrietako produktuak
- Etxeko tripaki eta txistorrak

Etxaburueta 5
Telefonoa: 943 75 23 75

Hortz klinika

Javier Alonso
Mediku Estomatologoa
K.Z. 20.000.434

Katia Gustino
Odontologoa
K.Z. 48.001.541

Errabal 1 - Tel.: 943 75 16 13

27 urteko esperientzia

Minik gabeko anestesia, odontologia orokorra, protesi finkoa eta mugikorra, odontopediatria, ortodontzia, implanteak, estetika...



Murala berri margotzeko deialdia zapaturako

Aste honetan Udalak kaleko bi mural ezabatu izanak ezinegonan sortu du zenbait herritarren artean. Astelehenean Plaza Berrian egin zuten batzarraren ostean, herritarrei dei egin diete parte har dezaten zapatuan, goizeko 10:00etan, Santa Anako horman egiteko diren mural-pintaketan. *"Soraluze anitz eta koloretsu baten alde"* izeneko manifestua kaleratu dute eta bertan adierazi dute kalea herritar guztien dela eta haren erabileraren inguruko erabakia ere herritar guztiei dagokiela.



Balkoietako lore-lehiaketa

Udalak balkoi eta leihoetako lore-lehiaketa antolatu du. Lehiaketan izena emateko, parte hartzailearen izen-abizenak eta balkoi edo leihoa identifikatzeko helbidea jakinarazi behar dira udaletxean, maiatzaren 31 baino lehen. 100 eta 50 euroko bi sari banatuko dira, ekainaren 13an goizeko 11:00etan Plaza Berrian egingo den sari-banaketa ekitaldian.

Elkartasunezko ogitarteko erraldoia ekainaren 18an

Intxixuk, Arranoak eta Bolia tabernak elkartasun ekimen berezia antolatu dute ekainaren 18rako. Mendizabal okindegiarekin batera, ogitarteko erraldoia prestatuko dute eta ondoren, pintxoak salduko dituzte prezio sinboliko batean. Jasotako dirua *Aspanogik* elkartera bideratuko dute, Gipuzkoako ume minbiziduen gurasoen elkartera.

Mireia Gabilondo tabernariak azaldu digunez, Etxaburuetako gunean jai giroa pizteko ekimenen bat antolatzeko asmotik sortu da ideia, "pentsatu genuen, zergatik ez uztartu jai-giroa eta elkartasuna?" eta herriko familia bat *Aspanogiko* kidea denez, dirua bertara bideratzea erabaki dugu. "Harrituta" daude ekimenak herritarren aldetik jaso duen harrearekin, "jende mordo bat etorri da bere burua boluntario moduan eskaintzera".

Herriko familia bat *Aspanogin*

Asier Alonso Oregiren gurasoak, Olatz eta Manolo, *Aspanogiko* bazkideak dira. Asierri urtarrilean diagnostikatu zioten leuzemia eta ospitalean egin dituen hila-



Maiatzean Porrotxen bisita jaso zuten ospitalean.

beteotan (orain etxean dago) *Aspanogik* hainbat zerbitzu eskaini dizkie: tramitazioetan laguntza, ospitaleko egonaldia arintzeko baliabideak... Gurasoek elkarrekin finantziatzen laguntzeko hainbat ekimen abiatu dituzte, honako hau esaterako: ama talde batek gailetak eta bitxiak saltzeko ekimena. Herriko tabernariak abiatu duten ekimenari ere oso ondo iritzi diote eta alde zuzenetik eskerrak eman nahi dizkiete euren laguntza eskainiko duten herritar guztiei.

Giza-eskubideen aldeko trena

Soraluzeko Sare Herritarrak *"Hartu Trena"* kanpaina jarri du martxan, herritarrak preso eta iheslarien giza eskubideen inguruan sentsibilizatze helburuarekin. Hainbat herritarrek atxikimendua adierazi diote kanpainari eta datozen hilabeteetan beste hainbat ekimen egiteko asmoa adierazi dute. Barixaku honetan, *"giza sare"* ibiltaria egingo dute Frantziako Fresnes espetxean preso dagoen Itziar Morenok eta beste 24 euskal presoek jasaten duten isolamendu goera amai dadin eskatzeko.



**Erremintetan
%15eko
deskontua**



**Mendiola
Industrialdea 13**
Tel.: 943 75 18 81
www.belaitz.com

NEKAZAL ETA INDUSTRI HORNIGAIK

**JUAN MARI
ARRAINDEGIA**
Arrain freskoa
Etxera eramateko zerbitzua
Enkarguak hartzen ditugu
943 75 24 40
MERKATU PLAZA



**TXURITXU
GOZOTEGIA**
Tel.: 943 75 24 43
Asteleheneetik ostiralera:
09:00-13:00 eta 16:30-20:30
Larunbatak: 08:30-13:30 eta 17:30-20:30
Igandeak: 08:30-14:30
Gosariak, ogia, presak, pastelak, bombotak,
udaran terrazan kafea hartzeko aukera
pategabeara, etxera eramateko zerbitzua



MIKEL ARANZETA (SORALUZE, 1987)

“Dantzak barruan dudana adierazten laguntzen dit”

ARGAZKIAK ETA TESTUA E. UNAMUNO

Lehenengo sariak eskuratu ditu maiztzean Euskalduna Jauregian eta La Casillan jokatu dituen kaleko dantzen bi lehiaketetan. Joan zen astean Bergarako Kilometroen aurkezpeneko koreografia ikusgarrian parte hartu zuen eta herrian ere dantza-ikuskizuna eskaini zuen kirol-egunean. Horrekin batera, astero, herrian Zumba saioak ematen ditu Gaztetxean eta hip-hop eskolak ematen dizkie Bergaran 14-18 urte bitarteko neskei. Mikel Aranzetak bere bidea egiten dihardu dantzaren munduan.

Zela hasi zinen kaleko dantzetan?

Txiki-txikitatik izan dut dantzarako afizioa baina Bartzelonan bizi nintzela hasi nintzen kaleko dantzak ezagutzen, 21 urterekin. Han hiru urte egin nituen bi eskolatan eta bueltatu nintzenean erabaki nuen ez nuela lotura hori eten nahi, beraz, Eibarko eskola batean eman nuen izena. Geroago, Bilbon casting bat egin zuten mutilez osatutako talde bat sortzeko eta han hasi nintzen. Geroztik, leku askotan ikasi dut: Leonen, Bartzelonan, udan Polonian. Pena dut gazteago hasi ez izana.

“Bartzelonatik bueltatu nintzenean erabaki nuen ez nuela kaleko dantzekiko lotura moztu nahi”

Gogor eman zizun zaletasunak.

Bai eta neretzat dagoeneko ez da hobby hutsa. Dantza garaikidea landu dut, euskal dantza eskolak jaso ditut, salsa... ez dago ezer soberan. Dantza eskolak ere ematen ditut eta dantzari moduan zenbat eta formazio zabalagoa izan, hobe. Dantza munduan norbait izateko gero eta beharrezkoagoa da hainbat dantza modalitatetan formakuntza izatea.

Zer ematen dizu dantzak?

Barruan dudana adierazten laguntzen dit. Ez hitzen bidez, baizik eta mugimenduen bidez. Ni egunerokoan ixil



Igor Piñeiro eta Mikel Aranzeta.

samarra naiz, baina dantzan izan naiten harroagoa, sentsibleagoa... Dantzak lagundu dit neure burua ezagutzen eta indartsuago sentitzen; izan ere, kaleko dantzek jarrera aktiboa eskatzen dute.

Kaleko dantzak oso bideratuta daude jendaurreko ikuskizunera, ezta?

Beharbada bai. Ez du zertan hala izan, baina egia da kaleko dantzak askotan jendaurrean egitera bideratuta daudela, eskoletan beti bideratzen da ikasturte amaierarako ikuskizunera... Beharbada, kaleko dantzen barruan break dance-a gehiago dago ikuskizunera bideratuta, nik egiten dudana hip-hop bano.

Gaur egun Euskal Herrian kaleko dantzak zenbat egiten dira kalean?

Egia da gero eta gehiago eramaten ari direla eskoletara, antzerkira, konpetizio-ra... Baina kalea mantentzea ere kome-niko litzateke. Kalean lagun artean dan-tzatzen da eta libreagoa da. Eskoletan koreografiak ikasten dira eta oinarriko pausoak.

“Egunerokoan ixil samarra naiz baina dantzan izan naiteke harrogoa, sentsibleagoa...”

Giro aldetik zelakoa da?

Badago elkarrekiko inbidia eta goitik behera begiratzeko joera bat, batez ere, lehiaketetan. Musika aldetik joera handia dago ingeleserako, Estatu Batuetatik datorren hip-hoperako. Hip hopa dantzatzeko musika ez da entzuten ez euskaraz eta ez gazteleraz, ingelesez entzuten da; musika amerikarraren oinarriak hobek dira dantzarako.

Etorkizunean zein bide egin nahiko zenuke?

Aurtengo udan Londresera joango naiz Igorrekin batera, hip-hop dantzak ikas-teko udaleku batzuetan parte hartzera. Ikasteak balioko dit etorkizunean dan-tzak erakutsi ahal izateko. Lehian, prin-tzipioz, beste urtebetez behintzat jarraituko dut; gehienez beste bi urtez, eta lehiaketak lagatakoan dantzak irakasten zentratuko naiz.

LABURREAN

Dantzari bat?

Candance Brown.

Dantza-talde bat?

Bullets.

Kaleko dantzez aparteko beste dantza-mota bat?

Garaikidea.

Koreografo bat?

Denzel Chisolm.

Musika bat?

R&B.

Gustuko dantzaleku bat?

Euskalduna.

Zapaldu nahiko zenukeen dantzaleku bat?

New Yorkeko toki ezagunen bat.

Euskal dantzak.

Probatu ditut baina nahiago ditut ka-leko dantzak.

LEHIAKETAK

“Euskaldunan saioa amaitu nuenean negar egin nuen, pozaren pozez”



Mikel eta Igor D'zanp lehiaketako saria eskuetan dutela.

Zela bizi dituzu lehiaketak?

Neretzat lehia bere horretan ez da garrantzitsua, baina lehiaketetan parte hartzeak laguntzen dit nerbio puntu hori izaten, ikasten laguntzen duena. Neri eszenatokira igotzeak konfidantza eman dit. Joan zen urtean Euskalduna Jauregian txiki-txiki sentitu nintzen baina aurten sekula baino gustorago sentitu naiz. Sekulakoa izan da 1500 lagunaren aurrean dantza egitea. Hori ez da egunero gertatzen den zeozer.

Eta, gainera, irabazi.

Bai, beti ematen du poza sari bat irabazteak baina pozik handiena egindako lanaren errekonozimenduak eman dit, batez ere, ondo sentitzeak. Saioa amaitu nuenean negar egin nuen, pozaren pozez. Lehenengo aldia

izan da saio baten ostean negar egin dudana.

Zela ezagutu zenuen Igor?

Bartzelonatik bueltan etorri eta Eibarko eskolan izena eman nuenean ezagutu nuen. Nik 23 urte neuzkan eta berak 8. Begiratzen nion eta pentsatzen nuen “hau nora doa zortzi urterekin?”. Orain, bera Iruneko talde baten dago eta lehiaketetan ikusi dugu elkar. Otsailean proposatu nion elkarrekin zeozer prestatzea eta martxoan hasi ginen; oso ondo moldatu gara. Handik astebetera Santandergo lehiaketa batean parte hartu genuen. Eta Bilbon parte hartu dugun azkenengo bi lehiaketetan lehenengo sariak lortu ditugu: D'zanp eta Dantzatu lehiaketetan.

ATZERA BEGIRA, AURRERA EGITEKO

Pil-pilean: 20 urte euskararen saltsan



Elkarrizketatu ditugun herritar euskaltzale batzuk.



Arianne Unamuno
Pil-pilean euskara
elkarteko lehendakaria

Zerbait ekarri badu Pil-pileanek herri-
ra, saltsa izan da. Euskara, elkarlana,
umorea, lagunartea, sormena, autoera-
keta... osagaitzat izan dituen saltsa. Etxe
guztietara euskara zabalduz aldizkaria-
ren bitartez, ehundaka eta milaka bisita
dituzten gure herriko kontuak plaza
digitalean jarriz, herriko ume eta gazte
guztiekin aisialdia gozatzuz, kultur eki-
men esanguratsuenei festa eta alaita-
sunarekin helduz, auzolanean eskuz
esku. Labur esanda, euskaraz gustorago
bizitzeko aukerak eta bideak zabaltzeko
ahaleginean tematuta ibili da 20 urtez
Pil-pilean euskara elkarteak. Eta orain zer?
Izateko gogoia

Elkartearen ibilbideari errepassoa egiten
hasterako, galderak: "Eta aurretik zein ibi-
li da euskara bultzatzeko ekimenetan?
Eta zergatik? Eta zer ekimen izan dira?
Eta noiz? Eta zer irabazi du euskarak?
Zer daukagu ikasteko atzera begiratu-
ta?". Hasi gara aztarka eta... zenbat altxor
deskubritu ditugun! Gerra aurrean ida-
tzitako euskarazko ehundik gora herri
kronika, gerra garaiko eta osteko sufrika-
rioan, ezkutuan, euskararen transmisioak
nola iraun zuen azaldu diguten herrita-
rren testigantza sinestu ezinekoak, ikas-
tolaren sorrera eta ondorengo urteetako
bizipenak ondo gogoan dituztenen go-
goeta sakonak, kantuak eta poemak...

eta gaur artean izan diren beste ekimen
askoren berri izan dugu, bizi izan zute-
nen ahotik. Urteak joan ahala, pertso-
nak aldatu dira, herria bera, bizimodua,
mundua... baina euskaldun izateko go-
goak iraun du.

**“Eta aurretik zein ibili
da euskara bultzatzeko
ekimenetan? Eta zergatik?
Eta zer irabazi du euskarak?
Zer daukagu ikasteko atzera
begiratura?”**

Eta jarraitu nahi dugu testigantzak ja-
sotzen, eta zuk etxean ondo gordeta
dituzun ikastolako argazki zahar haiek
eskuratzen, edo gau-eskolako ariketak,
edo Urakapinek antolatutako kontzertu
gogoangarri hartako kartela edo... Ho-
riekin guztiekin erakusketa antolatuko
dugu abenduaren 3aren bueltan, urteu-
rrena ospatzeko aukeratu dugun egun
berezia. Zerbait interesgarria daukazu-
la uste baduzu, gerturatu Pil-pileanen
bulegora edo jarri harremanetan gu-
rekin: koordinazioa@pilpilean.com edo
605706086 zenbakian. Izateko gogoia
elikatzen jarraituko dugu!

TESTIGANTZAK PIL-PILEANEZ

Maite Etxeberria

“Euskaltegixan pentsatzen genduan:
“Euskara normalizatzeko ze pauso
emon bihar dira?” Inguruko herrixe-
tan aldizkari bat etaritzen zebe eta
sasoi hartan bide bakarrenetakua zan
helduengana heltzeko, alfabetaziño
eta euskalduntze munduan murgil-
tzeko eta arlo kulturala lantzeko. Uda-
lian eskatu genduan eta ez genduan
lortu. Eta esan genduan: “Ezin dala?
Ba egin egingo dogu!”

Oskar Elizburu

“Fotokopiak etarako dittugu, grapatu
eta banatu egingo dogu.” Pentsatu
genduan. Lehenenguan 100 ale etara
genduzen. Nik etxian daukat gordeta.
Orduan pentsatu be ez genduan egi-
tten lan profesional bat, koloretako
aldizkarixa eta oin dan guztia izango
zanik. Pentsatu bez!”

Oskar Elizburu

“Nundik etaritzen ginuan dirua? Eus-
kaltegiko azpiegituretik: fotokopixak
eta folixuak handik, eta ikasliekin tai-
larrak montatzen genduan: zuek gra-
patzen, zuek tolosten... kulturgintza
metodologia zan orduan: ikasten
genduan guztia, egin.”

Maite Etxeberria

“Aldizkarixa mamituta zeguanian, kul-
tura lantzeko biharra ikusi genduan.
Azkenian zan behar bat ikusi eta au-
rrera!”

Motzean

Atxotegi eta Bolinaga finalean dira

Deba Arroko pelota txapelketako finala jokatu du Atxotegik eta Bolinagak, final-erdietan Zubizarreta anaiak mendean hartu ostean. Aurkariak Bergarako Mugurza eta Iñarra izango dira. Finala ekainaren 12an jokatu da.

Albisua Bigarren A mailarako borrokan

Barakaldoko jokalariaik Lleidararen kontra jokatu du domekan 20:00etan Bigarren A mailara igotzeko itzuliko partidua. Albisua, Bigarren B mailako bigarren erdilari onena izendatu du zaletuek, "Hablemos de futbol" webgunean.



Irene Perez euskadiko txapelketan

Gipuzkoako txapelketan, Senior A mailan, bigarren postua lortu du aurten bakarka eta taldean. Domeka honetan, Gasteizen egingo den Euskadiko gimnasia erritmikoko txapelketan parte hartuko du Soraluzeko gimnastak Ipuruia klubarekin.



Boleta-saioa San Andresen

Zapatuan, hilak 28an, izango da urteroko bolarien zita San Andresen. 16:00etan hasiko dira bolariak lanean. Txapelketako azken-aurreko botaldia izango da, eta denboraldia hurrengo astean amaituko da Bergaran.



Aurtengo finala Ordizian



Sora B taldea finalerdietan. Argazkia: Jokin Ruiz.

Bigarren urtez jarraian jokatu du Soraluze "B" taldeak Gipuzkoako kopako finala. Ordizian jokatu du zapatuan, arratsaldeko 17:00etan, eta Gazte-Azkuene taldea izango du aurkari.

Kirol eguna iruditan





EDURTZA
taberna

Ogitartekoak, razioak, hanburgesak, pintxoak eta pizzak

Patata tortillak egiten dira enkarguz

Santa Ana 18
Tel: 943 75 13 83



MENDIZABAL
okindegia

Ogia - Prentsa Gosariak

Astleheneretik ostiraloraz:
08:00 - 13:15 eta 17:00 - 20:00

Larunbatak eta igandeak:
08:00 - 13:15

Kalebarren 10 - Tel.: 943 75 13 99

Hamabost postu II. Azoka Jasangarrian



2014ko azoka.

Zapatu goizean egingo da Azoka Jasangarriaren II. edizioa. Herriko eta kanpoko ekoizleek jarritako hamabost postu baino gehiago izango dira aurtentzen, elikadura eta artisautza produktuekin osatutakoak gehienak: ukenduak, egurrezko jolasak, gaztak, higiene produktuak, otarrak, kosmetika naturala... Azoka goizeko 10etan hasi eta 14.00ak bitarte izango da zabalik. Goizeko 11etan ogia egiteko tailerra egingo da eta 13.00etan herriko gazten dastaketa.

Dantza eta bertso-jaialdia



Ezoziko erromeria. Argazkia: Fernan Oregi.

Ohitura den moduan, ekaineko lehenengo domekan, ekainaren 4an, Haurren Euskal Jaia egingo da eta ekaineko bigarren zapatuan, ekainaren 10ean, Ezoziko erromeria. Erromeria egunean paella jan nahi dutenek, 5 euroko prezioan, Iratxo goxodendan eman beharko dute izena. Ekainaren 3ko bertso-jaialdirako sarrerak ere bertan jarri dituzte salgai. Bestalde, ekainaren 6an Miren Artetxek hitzaldia eskainiko du bertso eskolen inguruan, arratsaldeko 19:00etan, kiroldegiko erakusketa-gelan.

Irakurri, Gozatu eta Oparitu azken txanpan

Aurtengo IGO kanpainarekin batera, maiatzaren 31n amaituko da liburutegian hartutako liburua irakurtzen amaitu, fitxa bete eta %35 deskontu txekoa jasotzeko aukera. Mikel Herrero irakurle gaztea izan da, apirilean parte hartzaile guztien artean zozketatu den 30 euroko deskontu-bonoaren irabazlea.



Tatoo Circus jaialdia

Ekainaren 18an Tatoo Circus jaialdia egingo da gaztetxean. Egun guztian zehar tatuaiak egiteko aukera eskaintzearekin batera, magia, baka-rrizketa, antzerki eta dantza akrobatikoen ikuskizuna eskainiko dute 19:00etatik 21:00etara bitartean. Espetxeen aurkako ekimena da eta presoek idazteko txokoa ere egokituko dute.



SANTA ANA, 9
TEL. 943 75 12 63
SORBOLUZE

PEDIKURA SPA
MANIKURA
SEMIPERMANENTEAK
HARI BIDEZKO DEPILAZIOA
MAKILAJEA

facebook 



Zorion agurrak



Miguel Asensio
Maiatzak 12. Zorionak eta muxu haundi bat etxekuen partez.



Trinidad Larrañaga
Maiatzaren 8an, 103 urte. ZORIONAK! Oso ondo pasatu genuen zure urtebetetzeko eguna. Etxekoen partez.



Oihan Arrieta
Apirilaren 30ean, urtebete. Zorionak!! Askok maitxe zaitugu. Etxeko guztion partetik.



Nora eta Begoña
Maiatzak 24an, 6 eta 67 urte. Zorion agurra! Muxu pila bat etxekuen partez.



Nagore Caballero
Maiatzaren 30ean, 9 urte. Zorionak gure etxeko pritzesari. Maite zaituen familia guztiaren partez.



Inar Arroyo Madera
Maiatzaren 24an, 5 urte. Zorionak etxeko guztion partetik, mutil handi!



Onintza Ibarzabal
Maiatzaren 30ean, 11 urte. Zorionak eta muxu potolo bat etxekuen partez!



Iker Etxabe
Apirilaren 11n, 17 urte. Zorionak! Etxekoen partez!



Jaime eta Mariasun
Maiatzak 9an Urrezko ezteiak, 50 urte elkarrekin! Zorionak bion! Segi horrela urte askotan. Muxu handi bat familia guztiaren partez.

Urte askotarako!

Zoriondu lagunak eta senitartekoak Pil-pileanen:

- Whatsapp **605706086** zenbakira.
- Mezua **aldizkaria@pilpilean.com** helbidera.
- Webguneko **www.plaentxia.eus/zerbitzuak/zorion-agurrak** helbidean sartu.
- Lokalera ekarri: 10.30etik 13.00etara bitartean.

Jaioberrniak



Ager Esnaola Tello
Maiatzaren 13an jaio zen



Enaitz Quilez Zabala
Apirilaren 27an jaio zen

Kintadak




1956an jaiotakoak Txurrukan, maiatzaren 14an



1976an jaiotakoak Txurrukan, maiatzaren 14an

Jaiotakoak eta hildakoak



Ager Esnaola Tello
Enaitz Quilez Zabala



Martin Rodriguez Vinagre
Maria Aranzazu Sasiain Olabarria
Paula Ariznabarreta Ereña
Esteban Maiztegi Gallastegi

<p>KM design Kiru Muntalak</p>	<p>943 76 99 85</p>	<p>kirumuntalak@yahoo.es www.kmdesign.es</p>	<p>■ Diseinu eta Fabrikazio lanak</p>
			<p>■ Arotzeria</p>
<p>Pol. Amilaga 5 BERGARA</p>	<p>■ Sukaldeak Horma-armairuak Logelak Zoruak Ateak...</p>	<p>lanak oro har ■ Instalazioak</p>	<p>Tel. 943 76 99 85</p>



Iturria: Soraluzeko agrupazio sozialista.

1977an Herriko Etxea inauguratu zutenekoa

Alderdi Sozialistaren egoitza 1977ko urriaren 8an inauguratu zuten ofizialki, Santa Anan, gaur eguneko Comercial Vila denda dagoen lekuan. Gerra aurretik, El Liberal izeneko taberna zen Soraluzeko Alderdi Sozialistaren egoitza eta gaur egun, BBVA banketxea dagoen lekuan zegoen.

Lehenengo argazkian, egoitzako balkoian banderak ezartzen dihardute, inaugurazioko egunean bertan. Bigarren argazkia urtebete lehenago ateratakoa da, Santa Anako Herriko Etxean bertan. Argazkian ageri direnak: Pepe Luque, Angel Cerrejon, Txomin del Bosque eta Marcos Iraola.



OROIORE Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

- Zerbitzu etengabea 24 ordutan
- Ez onartu besterik gabe zure asegu-konpainiak esaten dizun hileta zerbitzua, jakin ezazu nahi duzun hileta zerbitzua aukera dezakezula beti.
- Guztiarekin arduratzen gara: eskelak, lorak, errausketak, hilobiratzeak, beilatokia, tramitazioak etab.

617442155 zenbakira deitu eta berehala jarriko naiz zurekin harremanetan

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin eta nire helburua familiari ahalik eta tratunik beroena hurbilekoena ematea izango da.

**ESKELA DOAN
PIL-PILEAN HERRI ALDIZKARIAN**

BERGARAN, Amilaga 27an

maribi • 617442155 • maribi@oroiole.com

KLB6

Kalebarren 6
943 57 74 26
Mutilen eta nesken
moda gaztea

KLB6
www.berri-jardidenda



PAPA JEANS

TIREZ

MAISON SCOTCH
LA FEMME REGION MARIE

new balance

BLEND

MUNICH

VERO MODA

AURREZTU ENERGIA



Berotu etxea
**BIOMASA ETA
EGURREZKO
galdarekin**

fontaneria
San Andres
iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com

2 eta 3 LOGELAKO ETXEBIZITZAK GARAJEAK ETA LOKAL BAT



Eskaintza:
99.000 €-tik aurrera
2016ko uztailaren 15era arte



DESKONTU HANDIAK

943 12 13 95

www.aukera-inmobiliaria.com

Finantziazioa: 120.000 € 30 urtetara, 444 €ko hileroko kuota finko batetik aurrera.



DES KON TUAK

Soraluzeko komertzioek deskontuak eta eskaintza bereziak egiten dituzte hilero. Eskaintza baliagarria **maiatzaren 27tik ekainaren 10a** arte.

ELIZPE HORTZ KLINIKA Garbiketak eta enpasteak



35€

Lehen
50€

Deskontua
%30

Izena: _____

Tel.: _____

MENDIZABAL OKINDEGIA

Gosaria: zumo naturala + tostada edo opila + kafesnea



3,5€

Lehen
5,1€

Deskontua
%30

Izena: _____

Tel.: _____

EDURTZA TABERNA Pintxoak



1€

Lehen
1,5€

Deskontua
%33

Izena: _____

Tel.: _____

SAN ANDRES ITURGINTZA Grohe Minta Iturria



179,43€

Lehen
211,1€

Deskontua
%15

Izena: _____

Tel.: _____

zozketa

60 euroko bono bat zozketatuko da hilero. Parte hartzeko, eskaintzaren bat kontsumitu behar da eta norbere datuekin betetako fitxa entregatu.

Azken zozketaren irabazlea: Unai Prol

NIK.
HERRIAN



YO. EN EL
PUEBLO

PERSONA.
HELBURIA.

COMPROMISO CON.
LAS PERSONAS.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

ENKOMENDIA GABARIK
ETA LEHMAOTZAN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD